

8 irakasle ikertzaile kontratatzeko deialdia

2017/01/26

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak 8 irakasle ikertzaile kontratatzeko deialdia zabaldu du.

Profilak:

- Ingeniaritza Automatikoan, Elektronikoan edo Telekomunikazioetan Doktorea eta ikusmen artifizialean eta robotikan esperientzia duena.
- Ingeniaritza Automatikoan, Elektronikoan edo Elektrizitatean Doktorea eta potentzia elektronikan, energia biltegitatzean, sare elektrikoetan, bihurtgailuetan... ezagutza duena.
- Informatikako Ingeniari edo/eta Doktorea. Marketin Digitaleko ezagutzak izatea eta formazioan esperientzia izatea baloratuko dira.
- Informatikako Ingeniari edo Doktorea Cloud aplikazioak garatu eta hedatzeko, Big Data arkitekturen diseinua, garapen inguruetan esperientzia (AWS, Google Compute, Engine, OpenStack,...) automatizazio tresnak (Ansible, Puppet...) eta NoSQL datu baseak.
- Industria Ingeniari edo Doktorea, makinen eta tresneriaren diseinu mekanikoan eta makinen muntaketa mekanikoan ezagutzak dituena. SolidWorks, NX, CAD-CAM... ezagutzak izatea baloratuko da.
- Industria Antolakuntzako Ingeniari edo Doktorea, proiektuen kudeaketan, berrikuntzaren kudeaketako erreminta eta tekniketan eta berrikuntza prozesuen kudeaketan ezagutzak dituena. Industrian antolakuntzaren beste arlo batzuetako ezagutzak izatea baloratuko da.
- Industria Ingeniaria edo Doktorea mekanizatuko, laborategi mekanikoen kudeaketako, CAD-CAMeko eta CNCko ezagutzak eta esperientzia dituena.

Euskara eta ingelesa jakitea beharrekoa da.

Interesatuak **bidali curriculuma otsailaren 8a baino lehen** ondoko helbidera: lanpostu.mgep@mondragon.edu



Ikertzaileak Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan